

# c.1920



## Vicente Salinas



Vicente 1856 edo 1857an jaio zen Txileko Santiagon. Aita Isidro Salinas zuen, Galdakaokoa, baina jatorriz Lekeitiokoa. Isidro Txilera emigratu zuen gaztetan, eta beste lanbide batzuen artean botikaria izan zen. Bertan Dorotea Arribillaga Salinasekin ezkondu zen, txiletarra baina Tolosan jaioa.

Salinas Arribillaga senar-emazteek, Vicentez gain, beste lau seme-alaba izan zituzten: Dorotea, Julieta, Manuel eta Juan.

1866an familiak Andeetako herrialdea utzi eta Kataluniara aldatu zuen bizilekua, Torredem-

barrara lehenik eta Can Puigcarbóra ondoren, Tianan, Badalonatik gertu.

Mutilek Bartzelonan ikasi zuten: Manuelek, Medikuntza (Oftalmologia) eta Zuzenbideko urte batzuk; Vicentek, Bide ingeniari (1883an lortu zuen titulua) eta Juanek, gazteenak, Bartzelonan jaioak, Zuzenbidea.

1879an, Manuel Bartzelonan ezkondu zen Fabiana Arce Arruebarrena lekeitiarrarekin. Fabianaren aita, Antonio,

Agustin Goytisoloren bazkide izan zen Kuban eta bere ahizpa txiki Trinitadekin ezkondu zen. Trinidad izan zen Kanpilo-ko etxea eraiki zuena. Jada umezurtz, Fabianak Bartzelonan pasatzen zituen denboraldiak Goytisolotarren ondoan eta han Manuelen neska-lagun egin zen.

Vicentek, ingeniari gisa, Bartzelonako portuan lan egin zuen, Valentziako portuko zuzendaria izan zen, Peñako urtegia eraikitzeko lanak eta Somporteko trenbide-tunela eraikitzeko lanak zuzendu zituen, Ceutako portua handitzeko lanak, etab. Bere karreraren amaieran, seguru asko, gogoz kontra joan behar izan zuen Madrilerara, eta han Herri Lanen Kontseiluan goi postu bat bete zuen.

Vicente ez zen inoiz ezkondu. Bere zereginetik uzten ziotenean, oporrak eta Eguberriak bere anaia Manuelen familiarekin igarotzen zituen Lekeition.


Gizon bidaiaria izan zen, bi zaletasunekin: bela eta argazkia. Bartzelona eta Valentzia inguruan nabigatzeko belaontzi txiki bat erosi zuen, Astic. Iritsi ez zaigun argazki-makina estereoskopiko bat izan zuen, eta, horrekin, bizitzan zehar, kristaletan errebelatu zituen argazki ugari egin zituen, kontserbatu den ikusgailu estereoskopio baten bidez ikus zitezzen. Argazki horien artean, Lekeitiora egindako bisitetan ateratako argazkien bilduma txiki bat geratu da. Vicente ezustean hil zen 1924ko urriaren 17an.

*Manu Ugartetxea*

Argazkien data zehatz baten faltan (ukaezina da 1924 aurrekoak direla) c. 1920 aukeratu dugu jakin arren argazki batzuk lehenagokoak direla.



SACROSANCTA PAROCHIALIS BASILICA LEQVEITIENSIS



Konopeoa eta tintinabuloa –a zelako izenak- ageri dira argazkian, biak basilika titulua duten elizek bakarrik erabil ditzaketen sinboloak. Conopeo edo umbráculo kanpin-denda antzeko tramankulu hori da eta tintinánbulo, onomatopeiak salatzen du, tin-tin, kanpaitxo. Lekeitioko Santa Maria elizaren fatxadan basilika tituluaren azpian ageri dira.



Jaiak plazan







Vizcaya ontzia 1905ean egin zen eta Brau-txikiñarena zen.



Carmen Angeles balandroa 1892an egin zuten Mendietatarren ontziolan.

Gehiago jakiteko ikus Rufo Atzuraren "Lekeitto, bere ikuspegitik", 35. or. eta Josu Erkiagaren "Baxurako arrantza Lekeition".




Errenteriako baserria Arropain auzoan



Mendietarren ontziola eta etxeak. Hasi dira konpontzen ontziola, amaitu beste kontu bat izango da.

Lau teillatu gainean...



Artikulu honetako argazki guztiak  
Vicente Salinasek ateratakoak dira.



Ugartetxea familiaren artxiboa